Sydney eta Queensland-ekoak gehienak.

Singapur eta Londresera ere bidali izan ditut lanak eta Lasarte-Oriara ere bai! Baina herrira egindako bidalketak laguntzat izan dira batez ere...

Diseinu ikasketak egin al dituzte?

Ez dut halakorik egin. Artearen Historia ikasi nuen baina betidanik gustatu izan zait eskulanak egitea.

Marraketa eta pintura gustatzen zait, ez naiz oso ona baina nire gauzatoak ere egiten ditut.

Lumekin gauza bera gertatu zait, oso gustora egiten dut lan lumekin. Pixkanaka gauza berriak egiten saiatzen joan naiz eta horretan jarraitzen dut.

Zer sentitzen du norbera-aren diseinuak kaletik ikustean?

Pasada bat da, poz izugarria sentitzen dut jendea nire lumekin eta batez ere boten gainean jartzeko osagarriekin ikusten dudanean.

Hasieran nire lanak saltzeko erabakia hartu nuenen, lotsa antzeko sentazioa nuen. Ez nekien nolako harrera izango zuten diseinuk ezta jendeari gustatuko zitzaizkion ere.

Behin hasita zantalzak argitu ziren.

Webgunean ikusi dugu etxekoak ere erabili dituzula zure diseinuak erakusteko modelo lanetan...

Bai, anaia eta koinata bisitatu erortzen direnean modelo bezela erabiltzen ditut, hemengo lagunetaz ere "aprobatzen" naiz ahala dudanean.

Ni neu ere jarri izan naiz kamaren aurrean!

Hala ere, modelo profesionalerik berriak ere erabili izan ditut elkarrekin promozionatzeko, argazkilaritza profesionalekin ere gauza bera egin dut. 'Chica Feathers' Facebook orrian jarraitzaile dexente izateko horrelako elkarlanak egiteko aukera eman dit.

Ea martxoan herrira bueltatzen naizenean hango lagunak animatzen diren modelo lanak egitera!

Momentu honetan zein eronka dituzu, noraino iritsi nahiko zenuke zure diseinuekin?

Orokorrean horrela jarraitzea gustatuko litzaidake. Esan behar da nik egiten dudala dena, produkzioa, interneteko salerosketak kudeatu, marketing lana...



Lumak lantzeaz gain beste bitxi eta osagarriak saltzen ditu Nereak.

TABERNA Buenetxea KAFETEGIA

Eguberri eta Urteberri egunetan eguerdiko 12:00etatik aurrera IREKITA !

GABON ETA URTEZAHAR GAUETAN GAU OSOA IREKITA !

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508 LASARTE-ORIA

Eguberri eta Urteberri on!

"Facebook-eko jarraitzaile kopuru handiari esker modelo eta argazkilari profesional hasi berriekin harremanetan jarri ahal izan dut eta nire lanak promozionatzeko elkarlanak sortu"



Senide eta lagunak jarri ditu modelo lanetan tartean Noelia Herrero bere koinata.

eta duela gutxi arte dendan ere lan egiten nuen. Dendan orain neska batek laguntzen dit.

Oraitxe egiten dudanarekin pozik nago, gustatzen zaidan honetaz bizi ahal izatearekin benetan pozik nago jada. Noski horrela jarraitu nahi dut. Datorren urtean Sydney-ra goaz, Perth-en bizi gara orain, eta han bigarren denda bat irekitzea ere gustatuko litzaidake.

Familiaz gain, zer da Lasarte-Oriatik gehien faltan botatzen duzuna?

Gutzira dagoeneko bederatzirente urte izango dira utarrilean Lasarte-Oriatik kanpo bizi naizela, Londresen hirurte pasa nituen eta dagoeneko sei urte daramatza Australian.

Familia eta lagunak dira

batez ere faltan botatzen ditudanak jakina baina baita hizkuntza, pintxoak, urdiaizpikoa eta txistorra adibidez edota ogia! Santo Tomas jaia eta Gabonekin gogoratzen naiz ere.

Hango bizimodua orokorrean faltan botatzen da.

Oso desberdina al da Australian bizimodua hemengoarekin alderatuta?

Bai zentzu askotan oso desberdina dela esango nuke. Ezkeretik gidatzen da, hego hemisferioan Gabonak udara erdian izaten dira eta hondartzan pasatzen ditugu. Bestetik, ordutegiak ere desberdinak dira goizean jaitzuzeko, lotara joateko, jateko... dana askoz goizago egiten da.

Kanpora joan baino, eteko party-ak oso aruntak dira hemen eta barbakook

egiten dira lagunak etxeretan, piknik-ak eta horrelakoak.

Bestalde, eguraldia oso ona da beti Australian, udarak luzeak izaten dira eta neguak oso motzak.

Lasarte-Oriara bueltatzeko asmoa duzu?

Ahal dudanean herrira bueltatzen naiz eta aste batzuetako egonaldia egiten dut. Urtero saiatzen naiz behintzat behin joaten.

Hurrengo bidaia Lasarte-Oriara 2015eko martxoan egingo dut. Baina ez dut

uste bizitzera bueltatuko naizenez. Dagoeneko Australian nire bizitza antolatuta daukat; ezkondua nago, Luka hirurte eta erdiko semea dut, denda martxan, hipoteka, lagunak... beraz ez dut uste. Hala ere, nork daki.

ABENDUAK 9-TIK 30-ERA

ATERPEA EROSI ETA LORTU ZURE SORTA

Zorionak eta Urte Berri on!

Ekain Liburudenda
Ormazabal Loradenda
Alda complementos
Zapateria Iturbe
Bazar Abreu
Merceria Olmi
Mertzeria Urruzola
Nogues Confecciones
Ventanas Isu
Electricidad Arregui
Orbela Ekodenda
Optica Lizarri
Bar Yolanda
Pub Usoak
LasarteSystem
Ventanas Alcar
Yoigo
Donna Boutique
Alba Moda
Santana Informática
Arkupe Taberna
Izarra Bitxitegia
Ferreteria Sukoa
Libreria Zumaburu
Bideo Lagunak
Lentzeria Maya
Cafeteria Buenetxea
Bar Andatza

Gabezia Lasarte-Oriako metal taldea

“Ezinegona baretzeko jotzen dugu, barrua husteko egiten dugu musika”

'Bilanx' diskoa atera eta estatuan barrena bira hasi du herriko Gabezia taldeak

Julen Basterra, Guillermo Murcia eta David eta Guillermo Carcedo anaiak dira Gabezia taldeko kideak. Ez dute beste taldeen bertsiorik jotzen. Ez dira eta ados jartzen. Bakoitzak bere musika gustuak ditu, gabeziak. Eta kolore guztiak batu dituzte 'Bilanx' estudioko lan berri honetan. Jendeak metala zarata eta garrasiarekin alderatzen duela diote, eta ez dute halakorik ukatzen. Baina euren kantuetan badago musika eta sentimendua, zaratzat gain. Hori zuzenean berresteko aukera izango dute herritarrek Abenden, urtarrilaren 9an.

Jon ALTUNA EGITEGI

Donostian egin dugu hitzordua, Larramendi eskola ondoko lokal txiki batean. Gabezia taldearen entsegu lekua da. Hogei metro karratu, eta musika uni-bertsu bat barruan.

Noiz eta zergatik sortu zenuen Gabezia? 2012ko udan sortu genuen. Txikitatik izan dugu interes

musikal handia, hortaz, interes musikal hori asetzeko asmoz sortu zen Gabezia.

Hasieratik, proiektua serioski hartuko genuela hitz egin genuen, metalaren estilo zabalaren barruan kokatu genuen geure burua eta aurreiritzi gehiegirik gabe abestiak sortzen hasi ginen, sortzen genuena sailkatzeko asmo handirik gabe.

Gizakia etsai lan laburrak

harrera ona izan zuen bi urte atzera, kolpe moduko bat izan zen, flash bat metal zaleontzat. Herrian bai, eta ausartuko nintzateke probintzian ere hala izan zela baieztatzen.

Metalaren mundua kuantitativoki txikia den arren, "mundutxo" horren barruan eraginik izan ez zuela ezin dezakegu esan. Izan zuen bere eragina, lehenengo lana izateko askok aitortu baituzten kalitatea eta sormena bazituela eta kritika onak izan dira jaso dituenak. Herrian ere, inguruko jendeak hala uste du, iritzi eman digutenek behintzat. Gainera, metala entzuten ez duen jendeari ere gustatu zaio, harrigarria eta pozgarria da hori.

Euskaraz kantatzearen hau-

tua egin duzue hasieratik. Kalterako izan daitekeela pentsa dezake askok, metalaren mundua asko ingelesez egiten delako, gaztelaraz ere bai, baina berezitasun etiketa ere ematen dizue hizkuntzak ezta? Zergatik euskaraz? Azkenean gure hezkuntza

euskarazkoa izan da. Beraz, zentzuzkoena euskaraz kantatzea dela uste dugu. Berezitasuna ematen digu eta harro egoteko identitate baten adierazlea da, mundu osora esportagarria.

Talde amateur bat izateko kritika oso onak jasotzen



Gabezia taldea duela bi urte sortu zuten Lasarte-Orian.

Okela

HARATEGIA

GURE ETXEAN EGINDAKOAK

PRESTATUTAKO PLATERAK

ETA

GURE URDAIAK

mortadelak

saltxitxak

chopped

hanburgesak

jamon york

....

Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912

Lasarte-Oria



*Eguberri zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



"Bilanx diskoaren izena latinetik dator eta "balantza" esan nahi du. Desoreka bat salatzen dugu lan honekin eta oreka dugu helburu"

ari zarete 'Bilanx' zuen lan berriarekin, Espainian barrena bira hasi duzue, furgonetan baffleak eta erremintak sartu eta handik hona ibiliko zarete talde handien gisan...

Tira... Talde handiek txoferrak, sukaldariak, managerra, eszenatokia eta ekipoa muntatzeko taldeak eta soinu teknikaria bezalako pertsonen egiten dituzte birak. Gu talde txikia gara une honetan eta lan guzti hauek guk egin behar izaten ditugu.

Iruditzen zaigu "amateur" hitzak musika hobby bezala hartzen duen persona definitzen duela. Gu, ordea, musika modu profesionalago batean hartzen ahalagintzen gara eta lan honen inguruko kritikak ere oso onak izaten ari dira, aurreko diskoak baino hobek.

Zuen melodietan, rifetan, kantuetan oro har nabari da musika ikasketak badi-tuzuela, ez zaretela lagun koazdira soil bat, gitarra, baxua eta bateria hartu eta basterik gabe batu zaretanak, baduzela gaia. Gaur egun susmoa daukat musika egitea erlatiboki erraz dela eta kalitate garrantzian neurtzen dela.

Kalitate asko dago musika kontserbatorioetatik kanpo ere. Gu kontserbatorio barruan zein kanpoan ibili gara. Mundu "klasiko" akademikoa eta "underground" mundua ezagutzen ditugu, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Gaur egun edonork egin dezake talde bat, egia da erraztasun asko daudela taldeak sortzeko, baina gure uestez, formazio musikala edukitzeak ez du kalitatea bermatzen. Kalitatean hezkuntza musikalak laguntzen du, baina, interes musikala, ingu-

ruko taldeak entzutea, kontzertuetara joatea, "mundutxoa" ezagutzeara... Ezinbestekoa da kalitatezko musika sortzeko.

Testuie ere garrantzia ematen diezue halere. Esaterako, Jorge Oteizaren hitzak txertatu dituzue, metala ez dela bestelako arte-adierazpenekin kontrajarria ezta?

Bai, hitzari eta poesiari garrantzia eman nahi izan diogu. Hitzia garrasien artean adierazten den arren eta garrasiak mezuia distorsionatzen badu ere, horrek ez dio mezuari garrantzia gutxiagotzen. Jorge Oteiza hitzaren garrantzia azpimarratzeko autoritate gisa txertatu diugu.

Onartuko dizuet introa entzunda, Oteizaren hitzekin, oilo-ipurdia jartzen zaidala. Lotura bikaina egiten du Atabismoa lehen kantuarekin. Gustuarekin, pazientziarekin egindako lana da. Nolakoia izan da prozesua, nola grabatu duzue diska etapak?

Urte bateko lana izan da. Lehenengo, diskoaren hezur-dura egin genuen, alegia, zein kantu mota egingo genituen adostu genuen.

Ondoren, riffen hautaketa egin genuen, ezaugarri horiek betetzen zituzten kantuak sortzeko. Honen ostean, konposizioari ekin genion, hau da, "puzlea" egiteari. Orduan, "demoak" grabatzen hasi ginen (behin-behineko grabaketa). Azkenean, pista definitiboak eta azken ukituak eman genizkion lanari. Prozesu luzea izan da, laburki kontatzen dugu, baina ordu asko daude atzean.

Talde baten atzean lan asko dagoela ezin uka...

Bai. Astean bi aldiz elkartzea



Gabezia taldeko kideak ezkerretik eskubira: Guillermo Murcia (bateria), David Carcedo (ahotsa), Julien Basterra (gitarra) eta Guillermo Carcedo (baxua).

sakratua da. Honetaz gain, etxeko-lanak egitea ere ezinbestekoa. Eta "etxeko-lanak" aspektu musikaletatik haratago doaz sarritan. Talde bat serioasi hartzeak lan handia ematen du, baina, satisfazio handiak ere ematen ditu. Bestela ez genuke egingo.

Denera hamar kantu diskoan, thrash-metal, post-hardcore, metalcore kutsua ere bai kantaren batean... Metalaren mundu zabalean murgiltzen zarenaren eta aurreiritzi musikalak atzean uzten ahalagintzen zarenaren zure sorkuntza lanak uki ditzaiken generoak antizak dira halaberrez.

Estilo nahasketari ez diogu bedurrik. Kantak egitea da helburua, kanta sailkatu gabe "ondo" sartzen eta entzuten den kantua egiten saiatzen gara.

Soinu potoloa du, gorpuz askoko diskoa da, indartsua da, baina melodiari ez diozue muzin egin, askotan uztartuta ageri da gainera. Ze asmorekin?

Helburu berarekin, esplorazio musikal honetan positiboa eta aberasgarria iruditzen zaigu kontrasteak eta estilo desberdinak uztartzea, eta honek lau instrumentuetan du eragina: gitarran, baxuan, baterian

eta ahotsean. Esperimentatzea gustatzen zaigu.

Zer transmititu nahi duzue zuen musikaren bitartez? Zein helbururekin jotzen duzue?

Ezinegona. Ezinegona baretzeko jotzen dugu, barrua husteko eta jendeak ere barrua husteko egiten dugu musika. Sufrimenduari itenbide eman nahian, "gaizki" dagoena salatzeak eta geure buruarekin lasaia egoteko gutuzen gara oholtzara.

Eta hitzen bidez, zer esaten dute zuen kantuek? Edo behintzat, zer mezu zabaldu nahi duzue kantuekin? Letrak nahiko pertsonalak dira. Norbaitek letra bat egin nahi duenaren esan nahi duena esaten da. Ez dugu hitzen esanahia mugatu nahi, gure letrek bakoitzarentzat esanahi desberdin bat dute-lako. Hala ere, mezu guztiak laburbiltzekotan desoreka bat

salatzen dugula esan dezakegu, desoreka hau aspektu pertsonaleko edo gizartearen ematen delako eremu zabalean. "Bilanx" latinetik datorren hitzak "balantza" esan nahi du. Hortaz, oreka dugu helburu.

Kolaborazioak ere izan dituzue... Mikel Yarza (Hilotz), Ivan Martinez (Defectos Comunes), Petti... Esperientzia polita izan da kolaborazioena. Mikelen grabatutako garrasiak burua lehortzeko modukoak izan ziren literalki. Ivanekin egina genuena familiarentan izan bagina bezala izan zen. Eta Pettiren kolaborazioa ziztu bizian egin baguenen ere oilo ipurdia jartzeko moduko grabaketa oparitu zigun.

Gainera, azken aldian talde askoren gisan, autoekoizpeneko lana da, diskoetxerik gabekoa. Ze abantaila eta desabantaila ditu horrek?

"Gu kontserbatorio barruan zein kanpoan ibili gara. Mundu 'klasiko' akademikoa eta 'underground' mundua ezagutzen ditugu, biak dira garrantzitsuak"



SAMP-GAS

Eguberri zoriontsua opa dizuegu!!



Gas-instalazioak, berokuntza eta iturgintza

Ordutegia

9:00 - 13:00

16:00 - 20:00

Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165

LASARTE-ORIA



"Bi disko egin ditugu oso denbora laburrean eta kontzertu gutxiegi eman ditugu gauden lekuan egoteko. Orain, zuzeneko txanda da"

Abantaila nagusia alde ekonomikoa da. Auto-ekoizpenak gastu ekonomiko handiak aurrezten ditu, izan ere, une honetan ezin diogu estudio batean grabatzeak dakarren gastuari aurre egin. Honek, ordea, lan eta esfortzu handiak dakar grabatzen ikasi behar baita. Zentzu honetan Daviden interesa azpimarratu behar da berak gidatu baitu neurri handi batean auto-ekoizpenaren bidea. Beraz, abantaila: dirua; desabantaila: esfortzua eta orduak.

Kritiketan 'freskotasuna' hitza nabari da. Euskal metala ordu baxuetan zegoen, hala dago oraindik? Sorkuntza aldetik eta originaltasuna baloratzen dugun taldea izanik erreferente gehienak kanpoan bilatu behar ditugula aitortu beharra dugu eta belarriak Euskal Herrietik kanpo jarri ditugu gehienetan. Hortaz, "freskotasuna" kanpoan bilatzen dugun

arren Euskal Herriko eszenan interesa mantentzen dugu. Euskal metal ezzena bizirik dago, astero antolatzen diren kontzertuek baieztatzen dute hori. Zazpi probintzietan berrehun musika taldetik gora dago, Gipuzkoan 70 dira metala egiten duten taldeak. Beraz, ez ginateke euskal metala ordu baxuetan dagola esatera ausartuko.

Zein dira zuen musika-influentziak? Bakoiitzak bereak dauka. Luze joango litzaiguke denak aipatzea musika asko entzuten baitugu. Influentzia antizak eta desberdinak dira eta pluraltasun honek sorkuntzan berebiziko garrantzia duela iruditzen zaigu.

Bira hasita duzue, zer moduz doaz orain arteko zuzenekoak? Elebeltzen debuta herriarren aurrean eta... Bartzelonan ere jo duzuela alajaina!

Elebeltzeko kontzertua ez zen bira bati hasiera bat emateko emanaldirik onena izan, Gabezia laukotea izanik taldekide batek huts egitea asko narbitzen baita. Dena den, jendearen erantzuna oso pozgarria izan da hasi berri dugun bira honetako bi kontzertuetan. Jendearengana gehiago heltzen garela sentitzen dugu, kontzertuetan eta kontzertuetatik kanpo.

Grabazioan, estudio lanetan emaitza bikaina lortu baduzue ere, zuzenekoetarako jaiotako taldea zaretela esango zenukete?

Zuzenekoetarako jaito garela esan ordez zuzenekoetarako egiten ari den taldea garela ueste dugu. Estudio lanetan lortutako emaitza onak zuzenekoetan berrestea dugu helburu. Urteetan zehar askotan igo gara oholta zuzeneko eta horrek lagundu du gure zuzeneko hobetzen. Izan ere, talde bezala ez ginen atzo hasi eta plano pertsonalean gitariko bakoiitzari jendaureraren egotea tokatu zaio une batean edo bestean.

Etapan honetan, asko zaintzen ari zarete sare sozialak, bideoen edizioa, argazkiak... Esparru horre-

tan ere lan handia egiten ari zarete.

Musikari bezala oro informatikoaon bizitzea tokatu zaigu. Gure lana jendeak entzutea nahi dugun neurrian ezinbestekoa da jendeak une honetan gehien erabiltzen dituen birtualeko erabilteak. Estarake Facebook oso erabilgarria iruditzen zaigu gure kontzertuen zein berrien inguruan interesa duen jendea jakinarazteko jartzeko. Honetaz gain, Youtube-ra bideo asko igotzen ditugu, Spotify-n, iTunes-en eta Bandcamp-en gaude eta web orri bat erresortzen ari gara.

Abiada handian eboluziozontzen ari zarete, ez da zalantzarik. Norabiderik baduzue finkatuta? Nora jo, zer egin, ze urrats eman...

Orain egindakoa baloratzea eta disiruzitatea tokatzen da. Bi disko egin ditugu oso denbora laburrean eta kontzertu gutxiegi eman ditugu gauden lekuan egoteko. Beraz, une honetan kontzertu asko ematea tokatzen da. Hirugarren diskoa buruan dago jada, "riff", estribillo eta melodia berriak buruan daude, baina, ez da konposatzen hasteko unea. Hortaz, oraingo helburua taldea ezagutaraztea eta jendearen erreakzioa ikustea da.

Zer lortuta geratuko zinateke gustura? Euskal metalaren historian laguna bat egitea lortuko begutu errealizatuta sentituko ginateke. Bestalde, beti esan dugu Resurrection Fest bezalako musika jaialdi batean jozea gustatuko litzaigukeela. Une honetan amets bat da bertan jozea, baina, ari gara pixkanaka ametsak betetzen.

Nork daki... Dena den, amesteari ez genioke inoiz uko egingo eta amets berriak sortuko lirateke hauek betetzen genituzkeen neurrian, ziu.

Zer nolako egoera bizi du herriak musikaren alorrean? Herri multikulturala da Lasarte-Oria. Biztanle asko dit

baina ezin ditugu gure herri-tarrak pare bat genero musikaletan sailkatu.

Metalaren alorrean herria ez da kuantitatiboki oso aktiboa, baina, Parapetosonik bezalako ekimenek eta azken aldiin hainbat tabernetan antolatu diren metal kontzertuek positiboko izateko parada eskaintzen digute. Ezin da gu mugitzen garen genero honetan jendetza biltzea eskatu, dagoena baloratzen jakin behar da hainbeste aukera eskaintzen dituen herria.

Ba al dute herriko musika taldeek nahikoa azpigiatura entsegetarako, kontzertuetarako, lokal edota material aldetik?

Guk parapetoari esker hasi genuen gure abentura musikala. Alabaina, ezin esan dezakegu parapetoa etorkizunera begira dagoen talde batentzat egina dagoenik. Udaletxeak Gaztelekuak sortu du egoera hiru hobetzeko asmo onarekin. Hala ere, bertako ordutegiak, talde kopuruek, materiala gordetzeko eta muntatzeko arauak... Arazo bera dakarte: ez da etorkizunera begira dagoen talde batentzat egindako entsegu lokal bat.

Dena den, musika denborapasa bezala hartzen duten herriarrentzat egokia den instalazio bat dela iruditzen zaigu. Behar zuten Lasarte-Oria bezalako herri batek halako leku bat, gauzak hobeto egin zitezkeen, baina herriar askorentzat ondo egon daitekeen doako espazio bat da.

Beti izan du tradizioa musikarekin herriak, askotarikoa gainera, Joseba Tapia edota Angeles del Infierno, Gaueko Itzalak, lagun dituzten Hiloz, Juan Mari Beltran, Alboka Abesbatza, Zorro Sette eta Suberri akordeoi orkestrak...

Esan bezala, herriak duen izaera multikulturalarekin bat dator zerrenda hori. Positiboa da guztiz. Herriak berak eskaintzen du aukera herri-tarrak bere lekua bilatu dezan.



Iparmendebaldeko jainkoa, Atabismoa, Aszeta Gorena, Kitea Takite, Bidaiairi Iluna, Bilanx, Maitasun Kontuak, Kondena Bikoizta, Idoien Trafikoa, eta Trantsizioari Ipuina dira diskoko hamar kanta. Ekarrizketaren bideoa tintxarri.eus-en.

**Zure prezioa hobetzen dugu
Galdeiguzu erosi baino lehen
Harritu zaitze Bideo Lagunak-en sartzen**

**PREZIO,
ZERBITZU
eta ARRETA**

hoberanak lortuko dituzu

Bideo = TIEN 21 =

Lagunak

Etzekotresna elektrikoetan adituak

ORDAINDU 12 HILABETEAN INTERESIK GABE

Donostia etorbidea 2 - Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

Eskaintza gehiago Facebook-ean. www.facebook.com/BideoLagunakTien21

Eguberri eta urte berri on!

Ander Barrenetxea Murias taldeko txirrindularia

"Profesional mailara egokitu nahi dut"

Taldea eta kategoria, biak estreinatuko ditu Ander Barrenetxeak Murias Team-en

Ander Barrenetxea (Lasarte-Oria, 1992) herrian jaio bazen ere, galdakaoztar bihurtuta daukagu. Bere pasioa izan da txikitatik txirrindularitza eta orain profesioaletara eman du jautzia Murias Taldearen sorrerari esker. Pribilegiatua sentitzen da, oso gainera. Hala ere, jakin badaki txirrindularitza profesioalaren etapa nahi baino laburragoa izan daitekeela, eta horrexegatik egin ditu Ingeniaritza Industrialeko ikasketak Unibertsitatean. Orain, masterra osatzen ari da Barrenetxea, goi-mailako kirola eta ikasketak bateragarriak direla frogatuz. Eredua bi gurpilen gainean.

Jon ALTUNA EGITEGI

Fin dago Ander Barrenetxea, aurpegia zorrotzuta dauka. Argal dago, nahiz eta oraindik ez duten denboraldia hasi. Egiten dioten bigarren elkarrizketa omen da, oso eskertuta ageri da.

Zorionak Ander. Jautzia profesioaletara. Zeinetaz akordatzen zara momentu honetan, ametsa bete berri duzuean? Batez ere nire taldearekin gogoratzen naiz. Arratiako Txirrindularitza taldean igaro dut bizitza osoa, 11 urte nituenetik orain arte. Gogoan ditut urte urte eman ditudan pauso guztiak eta ikusi ditudan gauza guztiak.

Duela urtebete ziklistan profesionaletara izango nintzela esango balidate...ez nukeen sinetsiko. Oso eskertuta nago familiarri, laguneri, txikitako klubari eta baita Murias Enpresari berari ere, txirrindularitza zaren aldeko apustua egiteagatik.

"Hau ez da lana niretzako, sekulako poza izan da. Bat-bateko deia izan zen aukera emango zidatela esateko. Pribilegiatua sentitzen naiz, oso. Talde hau sortu izan ez balitz, ez nintzatekeen profesionaletara izango"

Zenbat lan egin behar izan da Euskal Herrian txirrindulari talde profesionaletara izateko?

Ez dakit, asko. Jon Odriozola gure gure zuzendari lanez lepo ikusten nuen... Lan asko egon da atzean, seguru.

Behar baino gehiago agian. Bai, bitxia izan da. Inork ez zuen hau espero. Urtean zehar notizia asko entzun eta irakurri ditugu han eta hemen. Talde batek ekipoa aterako zuela, gero beste batek... Azkenean, isil-isilean aritu direnak ateratu dute aurrera. Orain euskaldun guztiok talde profesionaletara izango gaituzte.

Horretarako, zuei tokatzen zaizue lana egitea, txirrindularioa.

Hau ez da lana niretzako, sekulako poza izan da. Bat-bateko deia izan zen aukera emango zidatela esateko. Pribilegiatua sentitzen naiz, oso gainera. Talde hau sortu izan ez balitz, ez nintzatekeen



Ander Barrenetxea (ezkerrean, beheko lerroan) bere taldearekin eta zuzendariarekin batera Murias Team-en aurkezpen ekitaldian. Profesionalen tropelaren euskal zaleek berde koloreari begiratu beharko diote orain.

profesionaletara izango, hori ziur izan.

Merez al du honaino iritsi ahal izateko igaro behar izan dituzun uze zail eta sufrimendu guztiak?

Bai bai, argi dago saltorik zailena emanda dagoela. Orain ikusi beharko da ea nola moldatzen naizen kategoria berriera. Mailara egokitzea da lehen helburua, eta gero gorakoak.

Jon Odriozola zuzendariak esan du ilusioa eta haize berria dakarrela zuen proiektuak. Zer zentzutan? Nabari da taldea oso gaztea dela. Beteranoenak 26 urte besterik ez ditu. Askok ez gara oraindik profesionalak izan eta ilusioa handitu egiten du horrek. Beste txirrindulari batzuk etxeko taldera itzuli dira eta etxean korritzeko motibazio handia ematen du

Halere, kanpoan jende asko geratu da. Euskadiko afizionatuek lasterketan maila ikaragarria dago. Zaila da, ezin diezulako guztiak aukera eman, nik zortea eduki dut, hori behintzat esan dezaket.

Esan duzun bezala, lantalde gazteak duzue oro har, gehienek afizionatuetatik salto egingo dute lehen aldiz profesioalera irizteko, baina Gari Bravo edota Egoitz Garcia txirrindulari zailduak ere badituzte taldean.

Bai, nik askotan ikusi ditut biak telebistan. Orain nirekin ditut eta hori izugarria da, bariengandik ikasi nahi dut.

Egoitzek (Garcia) ikaragarriko postuak egin ditu Belgikako klasikan eta Gari (Bravo) UCIProTour talde batean egon da, horrek prestigioa ematen dio taldeari.

Bi horiek taldeko buruak dira, baina besteek ere izango ditugu aukerak. Lasterketa garrantzitsuenetan eurak babestea izango da helburua, eta erasotzen eta ihesaldietan presentzia izaten ahalgintza gara, botellinak igo, argi ibili, buruarekin jokatu...

Zeintzuk dira Murias Taldearen helburuak orain? Txirrindulari bakoitzari presaketa ezberdina tokatuko zaio. Niri esan didate urtea lasai hartu beharko dudala. Urtarrilerara arte ikasten ari naiz eta ikasketek denbora asko kentzen didate.

Horrek zure egutegian eragina izango du, ezta?

Beno, orain dela gutxi jakin dut urteko lehen lasterketen data berdinetan Unibertsitateko azterketa finalak ditudala. Jakina, ez dut alferrik botako orain arte unibertsitatean



M^{LA}

MARIA LUISA

ILEAPAINDEGI

MIXTOA

Tel.: 943 370980

Zorionak eta Urte Berri on!

ENERITZ ESTETICA

Depilazioa, hargizari hotza eta berarekin Manikura eta pedikura Beticlak tintatzea Aurpegi eta gorputz tratamenduak

.....

Pablo Mutiozabal 9 behean • 20160 Lasarte-Oria



Tel.: 679 298250



"Master bat egiten ari naiz. Ikasturte hasieran matrikulatu nintzenean ez neukan aukera hau sortuko zenaren ideiarik. Unibertsitateko irakasgai guztiak hartu nituen eta hori akatsa izan zen, argi dago"

egindako gutzia, beraz, azterketak egingo ditut.

Dena den, espero dut lasterketa asko korritzea, berdin zait zer egin, poz eta ilusio ikaragarriarekin hartu dut aukera hau.

Amorebieta, Lizarra, Ordizia... Eteko lasterketa handietan zaleen aurrean aritzea polita izango da.

Bai. Helburu nagusia eteko lasterketak dira eta normala da, Murias enpresa Euskadikoa delako. Hala ere, espero dut kanpoko lasterketan ere ongi moldatzea, Europa iparraldeko lasterketan ondo moldatzea gustatuko lizaidake, probatu nahi nuke behintzat. Hango kultura ezagutu eta ikusi nahi dut, hemen ez daukagu eta halako ezaguarriak dituzten lasterketarik.

Noiztik ari zara txirrindularitzan? Zergatik ziklismoa? Gaztetan nahi nintzen eskolan, hamaika urterekin. Zergaitia ez dakit zehatz. Asko gustatzen zitzaidan, hori bai, ilusioa beti nabarmena nuen, bestela ez nukeen hainbeste iraungo, argi dago.

Zein dira zure indarguneak txirrindulari gisa? Eta ahulguneak?

Kilometro luzeetarako lasterketan ondo ibiltzea espero dut. Erresistentziako korredorea naiz, ez naiz batere esplosiboa. Lasterketa hasieretan gaizki pasatzen dut ihesaldiak harrapatzeko, baina kilometroek aurrera egin ahal hobeto moldatzen naiz. Afizionatu mailan kilometroak botatzen nintzen falta, eta orain ez dauzkadan soberan!

Zentzu guztietan dela

etapa berria zuretzat.

Inkognita horrek kezkatzen nau, abiadurak, nibelak... "Nolako da profesional maila?" galdetu diet profesional izan direnei eta euren erantzunak harritu egin nau. Lehen karreraren txirrindularitza niretzako moduko mundua ez dela pentsatuko dudala esan didate, jendea oso arin joaten delako. Baina hila bate bat edo bi barru moldatu egingo naizela eta gozatzeari ekingo diodala diote, hainbeste sufritu gabe.

Aipatu duzu Unibertsitatean ikasten ari zarela... Ingeniaritza Industrialeko ikasketak uzartu al ditaezte profesional mailako ezjizientziaren?

Mastera egiten ari naiz. Ikasturte hasieran matrikulatu nintzenean ez neukan aukera hau sortuko zenaren idearik ere. Mastererako irakasgai guztiak hartu nituen eta hori akatsa izan zen, ezin ukatu. Arraisalde osoak igaro behar izaten ditut Unibertsitatean, askotan hiru egun jarraian. Jakina, profesional mailan ezinezkoa da hiru entrenamenduzko jarraian galtzea.

Beraz, irakasgai batzuetan desmatrikulatuko naiz urtariletik aurrera. Txirrindularitzaren aldeko apostua egin nahi dut. Aukera izugarria eman didate eta ezin diot uko egin, topera jarraitu behar dut aukera honekin. Bi edo hiru urtetan amaitu daitezke ikasketak, presarik gabe. Txirrindularitzaren ibilbidea ez dakizu noiz bukatuko den, beraz, ahal den arte gozatzen saiatuko naiz.

Jarraitzen al duzu harremanik edukitzen Lasarte-Oriarekin?

Lehen best sei urteak hemen, herrian, igaro nituen eta gero Galdakaora joan ginen bizitzera. Han lehen hezkuntza hasi banuen ere, haurtzarora Zubietako ikastolan egin nuen. Oraindik ere askotan nator Lasarte-Oriara, aitona-amonak eta familiaren parte bat hemen daukat eta. Harremana ez da eten.

Lasarteoriatar sentitzen naiz, egun asko pasatzen ditut hemen bizikletan ibiltzen, Galdakao inguruko errepide berdinetan aspertu eta Lasarte-Oriara joaten naiz sarri. Hemen motibazio berezia topatzen dut, errepide berriak ezagutzea polita da, Bizkaiko portuak badakit nolakoak diren eta portu berriak ezagutzea asko maite dut. Horregatik aukera ona da herrira etortzea esperientzia berrien bila.

Erdi bizkaitar, erdi gipuzkoar zarela ikusita, barkatuko didazu, baina galdera hau egin beharrean nago. Real edo Athletic?

Egia esan ez dut futbol askorik jarraitzen, baina badakizu gure gurasoek elkarrekin jokatu zutela futboleant eta beraz ba beno, beti ikusten dut zerbait (barrez).

Han giputxi esaten didate eta agian horrexegatik, nahia-go Real.

Badago herrian Buruntzapi txirrindularitza eskola eta ziur bertan dabilzaten gaztetxo askok zu iritsi zaren lekura ailegatu nahiko luketela. Zergatik animatuko zenituzke haurrak pedalei eragiten jarraitzera? Edota sekula probatu ez badute, hastera?

Esango nieke jubenilak diren arte lasai hartzeko ziklismoa. Preokupazioirik gabe, tripa-jaterik gabe, gozatzegatik egin dezatela. Behin hara iritsita, erabaki dezatela zer egin.

Izan ere, orain konturatuzen naiz gaztea nintzenezan serioegi hartzen zenuela gauzak. Afizionatuetan ikusten da nork balio duen eta nork ez, bitartean, gozatzea da gakoak. Nik use dut jendeak



Ander Barreneketa ziklistak Murias Taldearen aurkezpenean, BIBE ferrian.

"Jendeak serioegi hartzen du txirrindularitza kategoriatik, profesionalak dirudite, halaxe prestatzen direlako, nire aholkua da beste kirol batekin uztartzea"

serioegi hartzen duela txirrindularitza kategoriatik, profesionalak dirudite, halaxe prestatzen direlako, ia-ia neurri berean. Nire aholkua da beste kirol batekin uztartzea eta nagusiagoa zerenaren erabakitzea.

Errepidearen arriskua, erorketak, gidariekin tira-birak... Hori da txirrindularitzaren B alde ezta?

Bai. Eta denbora asko kentzen duela bizitzako beste gauza guztietarako. Errepidean ibiltzea oso arriskutsua da eta telebistan oso albiste larriak ikusten ditugu, tira-birak, harrapaketak... Kontzientzia

ziano dago gakoak, eta hor denok dugu zeregina.

Amaitzeko, zer titularrekin amesten duzu? Zein da zure ametsa? Zerk beteko zintuzke txirrindularitza munduan?

Helburua lehen urtean profesional mailara moldatzea da. Urtebete igarota maila hori badaukat, kontentua egongo naiz. Bertara moldatzearekin konforme nengo. Gustora ibiliko naiz, presiorik gabe. Ametsa garaipean bertan litzateke, jakina, baina horretarako asko entrenatu beharra dago eta gainera, zortea izan. Irabaztea beti da oso zaila.



2015 zoriontsua opa dizuegu!

Eguberri on!



Kale Nagusia 39
Tel.: 943 372668
Faxa: 943 370737

Fede Otaegi Korrikalaria

"Erromeria moduko bat da Behobia"

Behobia lasterketa 32. aldiz jarraian egin du aurten Fede Otaegi herritarrak

"Aurtengo izan da Behobia lasterketan parte hartu duan azkeneko aldia". Elkarizketa hori eta behobia emen diru eskubide Fede Otaegi Taintarrari, Esaldi hori izan zitekeen emakizteraren titulurara, baina ez lasterkitze osirik kabituko, bigarren zati bat ere baduelako: "Hiruapalau urte daramatzat hori esaten, eta azkenean hurrengo urteko lasterketan izeno ematen botaerako diru". 2015eko edizioan parte hartuko duen ala ez jakiteko dago, baina datu eta zifra ziurrak ere badaude. Aurtengoaren 32. aldiz jarraian egin du korrika Fede Otaegi Behobia-Donosia lasterketa mitikoan.



Kamisa hori jaso du aurten Fede Otaegi, Behobia lasterketaren 30 edizio baino gehiagoan parte hartzeagatik.

Elgu GONZALEZ

32 edizio, 20 kilometro ingurukoa. Biderketan eremua, 640 Behobia-Donosia lasterketan Fede Otaegi egindako kilometroak. Kalkulu egitea baino zailagoa da distantzia hori korrika buruztea. Eta lasterketan gustura aritzeko, beste hainbat kilometro egin behar izaten dira aurretik.

inguru eginak ditu. Antokunizaren omenaldia ere jaso du aurten; 30 zenbaki-dun kamiseta bat jaso du, lasterketako 30 edizio baino gehiagotan parte hartzeagatik. "Erromeria" gisako bat da Federentzat Behobia, "korrikarien festa" moduko bat. 1983tik darama erromeria-irai joaten, urtero-urtero, hutsik egin gabe.

32. aldiz egin duzu aurtur Behobia lasterketa. Zer modua izan da? Ez nik nahiz bezain ondo, egin esan. Urtero saiatzen zara ordu bat eta erdian bueltan egiten lasterketa, baina aurten ez du lotu denbora hori jasteko, 1:36ko denboran igaro nuen helmuga.

Datorren urtekoan baduzu zer hobetu, beraz, Ez aurtengo izan baita nire azkenengo Behobia lasterketa. Beno, egin esan, badaramatzat hiruapalau urte gaurra bera esaten, baina lasterketaren egiroa hurbiltzen den heinean barnan daramazkan har horiek parte hartzea bultzatzen zaitu.

Pena litzateke horrenbeste urte eta gero urtea. Noiz hasi zinen korrika eginen? 1980. hamarkadan hasi nintzen lasterka eginen, anaiarekin batera. Donostiako dantza talde batean aritzen nintzen, eta hura utzi nuenean, aiazta eta biok gure bannari galdetu genion: "Zer egingo diagu orain?", eta erabaki genuen korrikari eginen hasiko ginateke. Lehenengo Behobia 1983. urtean egin nuen, anaiarekin batera. Parta bat aldiz irten nintzen harekin, eta beste



1983an egin zuen Fede Otaegi lehenengo aldia Behobia.

parte bat aldiz nire emazteren anaiarekin, baina haietaz zikizaten niri bezainbeste gustatzen, eta azken urteetan ni bakarrik ateratzen naiz.

1983tik, 2014ra, 32 Behobia lasterketa hanketan. Merezitakoa aurtun jaso duzun omenaldia. Detalle polita izan zen, bai. Lasterketak 50 urte bete dituzte, eta antokunizakoek hainbat korrikari omenatu dituzte: 25 urtetan parte hartu dutenak, 30etan parte hartu dutenak eta 35 egin dituztenak. Nik 32 egin ditut gutxiar: 30ekoen taldean sartu naiz.

Erromeria moduko bat da Behobia niretzat, korrikarien festa gisako bat. Nik hala hartzen dut behintzat. Urte osoan zehar nire kasa korrika eginen aritu eta gero, zer bait da desberdina egiteko aukera bat, egin berezi bat. Baina ez dut lasterketa bereziki prestatzen, ez da oibosio bat niretzat, eta gutxiagorik ere.

Zer modua izan zen? Lasterketa egunaren bezperan izan zen, Donostiako helodromoan. Motxilatik eta tresnak uzteta izan ginen, eta bertan komentatu zidaten omenaldierara. '30' zenbaki-dun kamiseta bat eman zidaten, argazki bat ere ateratu nuen... detalle oso polita izan zen omenaldierara.

AIZPURUA Pinturak 2015 zuzentzen ari daizugu!
* Pintura plastikokoak bereziki.
* Nahiz duzun koloreak egingo dizugu momentuan.
Zuzenberritako inbestratzaileak LASARTE-ORIA Tel: 943 362103

INPRENTA ERROTULUA
Asko disfrutatuz Eguberrietan!
BIZKER BERRIEN HARTZAILEA
GHEKOI, 9 - LASARTE-ORIA
Tel: 943 362 061

ABREU
Ondu igarotzen gaituzte jantzerik!
GHEKOI 2 - LASARTE-ORIA
Tel: 943 365896

"Erromeria moduko bat da Behobia lasterketa niretzat, korrikarien festa" moduko bat, urte osoan zehar nire kasa korrika eginen aritu eta gero zer bait da desberdina egiteko aukera bat; finean, egun berezi bat".

